



---

# **TPE Osakidetza banatzeko Bulego tekniko PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA**

**Izenpe**

---

© Izenpe s.a. 2008

Izenpe, SA da dokumentu honen jabea; edukia, berriz, konfidentziala da. Dokumentu hau ezin da ez osorik ez partzialki erreproduzitu, ezin zaie besteei erakutsi, eta ezin da bera entregatzea eragin dutenak ez diren beste helburu batzuetarako erabili, baldin eta Izenpe, SAK alde aurretik horretarako baimena idatziz eman ez badu. Kontratu baten indarrez entregatzen bada, haren erabilera kontratu horretan berariaz baimendutakora mugatuko da. Izenpe, s.a. ez da dokumentuaren edizioan gerta litezkeen akatsen edo aipatu gabe gera litezkeen alderdien erantzule izango.

## Edukia

<b>1</b>	<b>SARRERA</b> .....	<b>3</b>
<b>2</b>	<b>KONTRATUAREN HELBURUA</b> .....	<b>4</b>
2.1	BANAKETAREN KUDEAKETA GLOBALA .....	4
2.2	KOORDINAZIOA .....	5
2.3	GERTAKARIEN KUDEAKETA .....	5
2.4	PROIEKTUAREN JARRAIPENA.....	5
2.5	ZEHAZTAPEN TEKNOLOGIKOAK .....	5
2.6	TREBAKUNTZA/HEDAPENA.....	6
2.7	EBALUAZIOA.....	6
<b>3</b>	<b>ZERBITZUAREN ANTOLAKUNTZA</b> .....	<b>7</b>
<b>4</b>	<b>PROIEKTUAREN GARRANTZIA</b> .....	<b>8</b>
<b>5</b>	<b>ESLEIPEN IRIZPIDEAK</b> .....	<b>9</b>
<b>6</b>	<b>PROPOSAMENAREN DEFINIZIOA</b> .....	<b>10</b>
<b>7</b>	<b>ZERBITZUAREN KALITATE-JARRAIPENA</b> .....	<b>11</b>
<b>8</b>	<b>BERMEA ETA ISILPEKOTASUNA</b> .....	<b>12</b>
<b>9</b>	<b>JABETZA INTELEKTUALA</b> .....	<b>13</b>
<b>10</b>	<b>LANA EGITEKO EPEA</b> .....	<b>14</b>



# 1 Sarrera

Sarrera eta kontratatze beharra.

Euskal erakundeetan gero eta ziurtagiri digitaleko zerbitzu eta soluzio eskaera handiagoa dela-eta, Osakidetzak, Izenperen laguntzarekin, bertako profesional guztien artean txartel profesional elektronikoa (TPE) berria ezarri du. Txartel horrek, kudeaketa informatikoetan pertsonaren nortasuna bermatzen duen ziurtagiri digital korporatiboa gehitzeaz gain, ospitale eta osasun-zentrotako bulegotan sartzeko kontrolak kudeatzeko balioko du, bai eta begiratuta bakarrik zerbitzuaren erabiltzaileen aurrean profesionalak identifikatzeko ere.

Txartelaren ziurtagiri elektronikoa erabiltzeak, agente sanitarioen identifikazio segurua, ezkutuko datuen konfidentzialtasuna, datu horiek aldatuko ez direnaren bermea eta datuen benekotasuna egiaztatzea ahalbidetuko du.

Testuinguru horretan Izenpek proiektua osorik kudeatuko duen Bulego Teknikoa kontratatze planteatu du.

## 2 Kontratuaren helburua

Txartel korporatibo elektronikoa (aurrerantzean TPE) banatzeko Osakidetzak eta Izenpek sinatutako hitzarmenaren arabera, Izenpek, banaketa hori kudeatuko duen Bulego baten zerbitzuak eskatu ditu.

Beraz, baldintza honen helburu da, aurrerago deskribatuko diren esparrutan TPE txartela banatzeko lana kudeatzeko bulego teknikoa kontratatzea.

### 2.1 Banaketaren kudeaketa globala

Proiektuan zerikusia duten arlo guztiak gainbegiratu eta antolatzea, proiektuko zuzendaritzarekin zuzenean hitz egiteaz arduratuta, eta proiektuaren garapenean maila gorenetan ordezkatzeko gaitasunarekin.

- Proiektuaren helburuak zehatz-mehatz definitzea
- Proiektuaren definizioan ezarritako helburuak lortzeko beharrezko estrategiak definitzea.
- Proiektuaren jomugen definizioa eta horri lotutako dokumentazioa
- Proiektuaren fase bakoitzaren egutegi zehaztuaren definizioa, fase bakoitzean behar diren jarduera eta baliabideekin.
- Proiektuaren Jarraipen Planaren definizioa
- Arriskuen Kudeaketa eta Kalitate Plana
- Aldaketaren kudeaketa

## 2.2 Koordinazioa

Inplikaturako agente guztien artean proiektua koordinatzea, Erakunde Nagusiak zuzendutako Osakidetzako proiektu korporatiboa dela eta erakunde osora zabaltzen dela kontuan hartuta.

## 2.3 Gertakarien kudeaketa

Proiektuaren gertakariak kudeatzeko laneko definizio eragilea, bai eta bere kudeaketa eta erabakiarena ere, proiektuaren zuzendaritzak onartutako prozeduraren arabera

## 2.4 Proiektuaren jarraipena

Mugarrietan oinarrituta Proiektuaren Jarraipen Planaren definizioa: Dokumentazioa, Adierazleak, Gertakariak, Arriskuak, Zuzentzeko Neurriak, Aldizkakotasuna,... Proiektuaren baldintza espezifikoek eragindako kontrol-puntu berriak sortzeko aukera hartu da kontuan.

Jarraipen-plana Zuzendaritza Batzordeak onartuko du.

## 2.5 Zehaztapen teknologikoak

Proiektuaren eraginkortasunaren barne, Osakidetzan 'Sarvide Kontrol' korporatiboko softwarea aukeratu eta koordinatzearekin lotutako zereginetarako euskarria sartu dute. Software horrek, Osakidetzak ezarritako estandarrak beteko ditu eta SAP bidez homologatuko da.

## 2.6 Trebakuntza/Hedapena

Bideratzeaz arduratutako pertsonen zein TPEren etorkizuneko erabiltzaileentzat, prestakuntza/hedapeneko material egokiak lantzea, eta egokiak iruditzen zaizkien aldaketaren kudeaketa-estrategiak definitzea.

Prestakuntza-materiala Osakidetzaren tresnekin landuko da.

## 2.7 Ebaluazioa

Hainbat alderditan proiektuaren fase bakoitzaren ebaluazioa:

- ✓ Prozedurak
- ✓ Garatutako komunikazio-plana
- ✓ Erabileraren ebaluazioa (ziurtagiria eta plastikoa)
- ✓ Erabiltzailearen pertzepzioa
- ✓ Parte hartzen duten agenteak



### 3 Zerbitzuaren antolakuntza

Bulego teknikoko antolakuntzak honako ohar hauek hartu beharko ditu kontuan:

- Izenpe S.Ak eta/edo Osakidetzak kontratatutako zerbitzuen eta zuzenean kudeatutako beste hainbat osagarriren koordinazioa. Proiektuan bakarrik lan egingo duen pertsona bat beharko da. Pertsona horrek proiektuko zuzendaritzak erabakitako tokian egongo du lan.
- Enpresa esleipendunaren Koordinatzailearen mendetasun funtzionala zehatz-mehatz definitu eta ezarriko da, enpresa horretan nahikoa erantzukizuna eta gaitasuna izango duen hizketakide bakarra eskainita.
- Esleipendunak proiektuaren zuzendaritzari, proiektuaren analisi eta jarraipenari buruzko txosten xehatuak aurkeztuko dizkio aldizka. Bertan, lortutako helburuen inguruan egindako aurrerapen-maila, arriskuak, eman daitezkeen atzerapenak, horien arrazoiak eta zuzentzeko neurriak adieraziko ditu. Halaber, kontsulta eta gertakari garrantzitsuenak adieraziko ditu, zerbitzuak optimizatzeko eta etengabeko hobekuntza lortzeko.



## 4 Proiektuaren garrantzia

Proiektua, Osakidetzako Zerbitzu Erakunde guztientzako da, 30.000 langile inguruko bolumenarekin.

### Osakidetza Zerbitzuko Erakundeak

OS00	Erakunde Nagusia
OS05	Arabako eskualdea
OS06	Larrialdiak (ABEE)
OS12	Santiago Ospitalea
OS13	Txagorritxu Ospitalea
OS14	Debagoieneko Ospitalea
OS15	Arabako Ospitale Psikiatrikoa
OS16	Lezako Ospitalea
OS22	Gipuzkoako eskualdea - Ekialdea
OS27	Gipuzkoako eskualdea - Mendebaldea
OS30	Donostia Ospitalea
OS32	Bidasoako Ospitalea
OS36	Zumarragako Ospitalea
OS37	Mendaroko Ospitalea
OS39	Ospitalez kanpoko osasun mentala
OS42	Bilbaoko eskualdea
OS43	Barrualdeko eskualdea
OS44	Uribe eskualdea
OS47	Ezkerraldea/Enkartazioetako eskualdea
OS49	Transf. eta Giza Ehunen Zent.
OS53	Santa Marina Ospitalea
OS54	Bermeoko Ospitalea
OS55	Zaldibarko Ospitalea
OS56	Zamudioko Ospitalea
OS57	Gorlizko Ospitalea
OS59	B.ko ospitalez kanpoko osasun mentala
OS62	Basurtoko Ospitalea
OS63	Galdakaoko Ospitalea
OS65	San Eloy Ospitalea
OS66	Gurutzetako Ospitalea



## 5 Esleipen-irizpideak

Enpresa bakoitzak, derrigorrez, "A6" Eranskinean Izenpe S.Ak proposatutako ebaluazio-etaulak bete beharko ditu. Gainera, eskatutako egiaztapen-dokumentazioa aurkeztu beharko du, taula horietan emandako informazioa berresteko.

Esleitzeko irizpideak, emandako datuak alderatuta eta ondoren aipatuko ditugun parametroak kontuan hartuta ebaluatuko dira:

- Taldearen osaketa teknikoa (%30)
- Proposatutako kostua (%30)
- Proposatutako garapen-metodologia (%30)
- Zerbitzuaren eskaintza-bermea (%10)

## 6 Proposamenaren definizioa

Eskaintzaile bakoitzak aurkeztutako eskaintzak, gutxienez, ondorengo puntu hauek izango ditu:

- Zerbitzuaren definizio-proposamena
- Proiektuaren planning-a
- Zerbitzuaren antolakuntza-eredua eta garapen-estrategiaren definizioa
- Izenpe S.A. eta Osakidetzarekin komunikazio-, kontrol- eta koordinazio-sistemaren definizioa
- Negozio-orientabidea
- Zerbitzua ezarri eta jarraipena emateko gaitasuna
- Balorazio ekonomikoa

Agiri honetan ezarritako profilen arabera, eta jarduera espezifiko bakoitzean finkatutako epean, esleipendunak, taldea egoki gisa ebaluatu eta kalifikatuta mantentzeko konpromisoa hartu behar du. Konpromiso hori betetzen ez badu, Arau Orokorren atalean zehazten diren zigorrak jarriko zaizkio.

Eskaintzak egiteko, eskaintzaileek, proiekturako garatutako materialak jarriko dituzte (proiektuaren garrantzia, eta prozeduren definizioa)



## 7 Zerbitzuaren kalitate-jarraipena

Zerbitzu-kalitatearen kontrola eta jarraipena proiektuaren zuzendaritzak egingo du.

Edozein unetan, esleipenaren aurretik edo ondoren, edo lanak egiten ari diren bitartean, beste edozein motatako dokumentu osagarri eskatzeko eskumena du Izenpe S.A.k, lanen zein eskura dituen baliabideen inguruan enpresa esleipendunak/ek eskainitako datuak egiaztatzeko.

Halaber, Izenpe S.A.k edo Osakidetzak, eskatutako kalitate eta epeen barruan jarduerak betetzea bermatzen ez dela uste badute, jardueraz arduratzen den enpresak, lanak egiten ari den taldeko kideen izenak eman beharko ditu. Horrela, Izenpe S.A.k eta Osakidetzak pertsona horien gaitasunak ebaluatu ahal izango dituzte, eta taldeari agindutako jarduerak behar duten gaitasun-maila gordetzea exijitu ahal izango dute.



## 8 Bermea eta Isilpekotasuna

Enpresa esleipendunak jasotzen duen material eta informazio guztia erabat konfidentziala da.

Esleipendunek, kontratu honen helburua betetzeko egindako lan guztien ondorioz lortutako informazioa konfidentzialtasun osoz tratatzeko konpromisoa hartzen dute, eskaintza honek irauten duen denboran; halaber, kontratua amaitu ondoren obligazio hori bost (5) urtez mantenduko dute.

Esleipendunek, oinarri teknikoen agiri honen helburuak betetzeko egindako lanen ondorioz eskuratutako informazioaren erabilera, lanak egiteko informazio hori ezagutu behar duten eta aipatutako lanak egiteko ezagutzeko beharra duten langileei baino ez die eskainiko.

Esleipendunek langileei, informazioaren konfidentzialtasunari dagokionean hauek dituzten obligazioak gogoraraziko dizkiete eta konfidentzialtasun hori betetzen saiatuko dira.

Eskaintzaileek, eskuratutako informazioa hirugarrenei, osorik edo zati batean, ez bikoiztu, kopiatu, erabili edo emateko konpromisoa hartzen dute.

Kontratazio-epea amaituta, esleipendunek, eskuratutako material eta informazio guztia itzultzeko konpromisoa hartzen dute.



## 9 Jabetza Intelektuala

Izenpe S.A.k, ziurtagiri digitalak baliogabetzeko eskaeren izapidetzea kudeatzeko eskaintzen dituen aplikazio informatikoen ondorioz eman daitezkeen jabetza intelektualeko eskubide guztiak erabiltzeko baimena du edo eskubide horien titular bakarra da.

Enpresa esleipendunak ezingo du Izenpe S.A. titular bakarra den edo erabiltzeko baimena duen edozein elementu erreproduzitu, banatu, jendaurrean jakinarazi eta eraldatzeko ekintzarik egin Izenpek berak baimenik ematen ez badio.

Enpresa esleipendunek, Izenpe S.A.k emandako aplikazio informatikoen lizentziak, lehen deskribatutako zerbitzuak eskaintzeko baino ez erabiltzeko konpromisoa hartzen dute, betiere aipatutako lizentzietan ezarritako baldintzak errespetatuta.



---

## 10 Lana egiteko epea

Bulego teknikoa 2009ko abenduaren 31ra arte egongo da zabalik, aldeek hala adostu ondoren.